

Funtsezko Elkarteak

Gure negozioak funtziona dezan, elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoak egin beharko ditugu; adibidez, Coca-Cola-rekin aliantza bat egiten badugu, Coca-Cola enpresak langile berriak behar dituzenean gurekin kontaktuan jarriko dira. Beste enpresa eta multinazional askorekin ados jartzen bagara eta negoziatzen badugu, langileen koordinazioa monopolizatu ditzakegu, baita arriskuak murriztu eta bezero kopuru handiagoa iza dadin.

“Reale seguros” enpresarekin elkartuko gara, eta hauek izango dira gure langileren batek istripuren bat jasaten duenean defendituko gaituztenak.

Pertsona gehiagok gure enpresaren berri izateko, ETBrekin jarriko gara kontaktuan, horrela gure enpresari buruzko iragarkiak aterako dituzte eta honi esker gure zerbitzua jendeari irekiko da eta langileak errazago bilatu ahalko ditugu.



Euskaltel-ekin aliatuko gara beraien zerbitzuak guri eskaintzeko (wifi, telefonoa, etab...) eta guk eskainiko diegu gure webgunean haiek patrozinatzea.

Inguruko enpresa ugariarekin aliantzak sortu nahi ditugu Euskadiko toki garrantzitsuenetan sukurtsalak ireki ahal izateko; eta, posiblea bada, beranduago Euskal Herriko leku batzuetan muntatu nahiko genituzke.

Aliantza honen helburua, bereziki, gure enpresa aurrera eramatea da, baita gure zerbitzua jendeari ireki ahal izatea; gainera, ondo ordaindutako lana eskaini nahi diogu behar duenari.

Bukatzeko, lortutako diru guztia BBVA bankuan gordeko dugu, bertan dirua mantentzeagatik enpresei deskontuak egiten baitie eta zerbitzu ona eskatzen dutelako.

Gure aliantza guztiak elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoak dira, eta Euskadi leku industrialala denez, aliantza ugari egingo ditugu fabrika ezberdinekin hauek



langile bat behar dutenean guk eskaini ahal izateko.